



EBAZPENA, 2022KO IRAILAREN 13KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.

- 1.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikulua arabera, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikulua, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.
- 2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.
- 3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.
- 4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.
- 5.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.
- 6.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.
- 7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, www.euskadi.eus/zerbitzuak/1205003 helbidearen bidez.
- 8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.
- 9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2022eko irailaren 13a

Firmado digitalmente por JON
ARTURO URIARTE UNZALU -
16263258G
Fecha: 2022.09.13 13:53:55 +02'00'

Jon Arturo Uriarte Unzalu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

ERANSKINA

Probintzia	Herrialde	Destino zentroa	Lanpostu/ dotazioa	HE	Derrigortasun- data	Kidegoa	Oharrak
Bizkaia	BILBAO	INSTRUKZIOKO 3 ZENBAKIKO EPAITEGIA	540001/12			IPAK	GU
Bizkaia	BILBAO	INSTRUKZIOKO 10 ZENBAKIKO EPAITEGIA	540001/50			IPAK	GU
Araba/Álava	AMURRIO	ZULUP PERTSONA BAKARREKO ORGANO MISTOAK 1	580001/1			IPAK	GU
Gipuzkoa	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	PROBINTZIA AUZITEGIKO ZULUP	580054/4			IPAK	JN
Gipuzkoa	IRUN	UPAD ORGANOS UNIPERSONALES MIXTOS 3	580001/27			IPAK	GU
Bizkaia	Bilbao	BIZKAIKO PROBINTZIA BULEGO FISKALA	580013/10			IPAK	GU
Bizkaia	BARAKALDO	SCPG-SCACE ATALA/BESTE BATZUK	480042/1	3	31.01.2015	PAKK	KE
Bizkaia	BILBAO	PROBINTZIA AUZITEGIA-2. ATALA - PENALA	405102/7			PAKK	JN
Bizkaia	MARKINA-XEMEIN	MARKINA-XEMEINGO BAKE EPAITEGIA	480007/51	3	31.01.2020	PAKK	JN